| | |
|---|---|
| **773/2018 EBAZPENA, DEBABARRENA ESIKO ZUZENDARI GERENTEARENA, AUTOKONTZERTAZIOAREN INGURUAN ESKUMENAK ETA IZENPEA ESKUORDETZAN EMATEARI BURUZKOA.** | **RESOLUCION Nº 773/2018 DE LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI DEBABARRENA, DE DELEGACION DE COMPETENCIAS Y DE DELEGACION DE FIRMA EN MATERIA DE AUTOCONCERTACIÓN.** |
| **AURREKARIAK** | ANTECEDENTES DE HECHO |
| **LEHENENGOA.-** Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 978/2017 Ebazpenaren bitartez, Maria Marbela García Urbaneja andrea DEBABARRENA Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izateko izendapena egiten da. | PRIMERO.- Por Resolución 978/2017, de 14 de julio, de la Directora General de Osakidetza, se nombra a Dª. Maria Marbella García Urbaneja, Directora Gerente de la Organización Sanitaria Integrada DEBABARRENA. |
| **BIGARRENA.-** Debabarrena ESIn, zuzendari gerenteak sinatu beharreko hainbat dokumentu daude, jarduera maila handia dagoelako bai lehen mailako arretan bai ospitaleko eremuan eta kudeaketa hobetzeko programetan parte hartzen duten fakultatiboei produktibitate osagarria aplikatzeko. | SEGUNDO.- La existencia de una importante actividad asistencial, tanto en atención primaria como en el ámbito hospitalario dentro de la OSI DEBABARRENA, exigen la firma de gran número de documentos por parte del Director Gerente en aplicación del complemento de productividad al personal facultativo por su participación en los programas de mejora de gestión. |
| **HIRUGARRENA.-** Komenigarritzat jo da zuzendari gerenteak Zuzendaritza Taldeko beste organo batzuen esku uztea Debabarrena ESIko zeregin eta jarduera batzuk, prozedurak arintzeko, eta lan-kargak banatzeko asmotan, kudeaketa arinagoa eta parte-hartzaileagoa izatea helburu. | TERCERO.- Siendo aconsejable la delegación por parte de la Directora Gerente de una serie de funciones y actividades de la OSI DEBABARRENA en otros órganos del equipo directivo con el fin de agilizar los procedimientos y de distribuir las cargas de trabajo para lograr una gestión más ágil y participativa. |
| **ZUZENBIDEKO OINARRIAK** | FUNDAMENTOS DE DERECHO |
| **LEHENENGOA.-** Euskal Funtzio Publikoarean 6/1989 legearen 6 artikuluak, 3. apartuan, eta otsailaren 20ko 36/1990 Dekretuak, 3. artikuluan, zerbitzua eman beharrak horrela eskatzen duenean Osakidetzari aitortzen diete eskumena langileen alorrean. | PRIMERO.- Que la Ley 6/1989 de Función Pública Vasca en su artículo 6 apartado 3 junto con el Decreto 36/1990 de 20 de febrero en su artículo 3 prevén la atribución de competencias en materia de personal a Osakidetza cuando así lo requiera la efectividad de los servicios. |
| **BIGARRENA.-** Osakidetza-euskal osasun zerbitzuko estatutuen 15.artikuluko 2. Atalak ezartzen duenaren arabera, zuzendaritzako kideek hartu ahal izango dituzte zuzendari gerenteak euren esku utzitako zeregin eta betekizunak. | SEGUNDO.- Que el art. 15, punto 2 de los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza, recoge que los cargos directivos podrán asumir las funciones y tareas que les sean delegadas por el Director Gerente. |

| | |
|---|---|
| **HIRUGARRENA.-** Osakidetza-euskal Osasun Zerbitzuko Estatutuen 20.artikuluak ezartzen duenaren arabera, Zuzendari Gerentea edo honek eskuordetzen duen taldeko burua, kontratazio-organoa eskuduna izango da. | TERCERO.- Que el art. 20 de los Estatutos Sociales del Ente Público, atribuye la competencia como Órgano de Contratación al Director Gerente o al cargo directivo en quien el mismo delegue. |
| **LAUGARRENA.-** Arlo Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 12. Artikuluaren arabera:<br>1. Administrazio-organoetako titularrek haien eskumeneko administrazio-ebazpen eta egintzetako sinadurak eskuordetzan eman ahal izango dizkiete menpean dituzten administrazio-organoetako titularrei, 9. artikuluan aipatutako mugen baitan.<br>2. Sinadura eskuordetzan emateak ez du aldatuko organo eskuordetza-emailearen eskumena, eta eskuordetza baliozkoa izateko, ez da beharrezkoa izango argitaratzea.<br>3. Eskuordetzaz sinatzen diren ebazpen eta jardueretan, adierazi egin beharko da norena den jatorrizko eskumena. | CUARTO.- Que el art. 12 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público establece que:<br>1. Los titulares de los órganos administrativos podrán, en materia de su competencia, delegar la firma de sus resoluciones y actos administrativos a los titulares de los órganos o unidades administrativas que de ellos dependan, dentro de los limites señalados en el art.9<br>2. La delegación de firma no alterará la competencia del órgano delegante y para su validez no será necesaria su publicación.<br>3. En las resoluciones y actos que se firmen por delegación, se hará constar la autoridad de procedencia. |
| Azaldutakoaren arabera eta esleituta ditudan ahalmenez baliatuz, eta dagokidan arloetarako | Por lo expuesto y en virtud de las facultades que tengo atribuidas y con relación a las materias que son propias |
| **EBAZTEN DUT** | **RESUELVO** |
| **LEHENENGOA:** Barruko hitzarmenen edo berezko baliabideen kudeaketa hobetzeko programen (autokontzertazioa), aplikazioari dagozkion zereginak Medikuntza Arloko Arreta Koordinatzeko zuzendariaren esku uztea. | PRIMERO: Delegar las funciones atribuidas en aplicación de la gestión de programas de mejora de concertación interna o de recursos propios (autoconcertación) en el/la Directora/a de Coordinación Asistencial del área médica. |
| **BIGARRENA:** Eskuordetzaz sinatzen diren ebazpen eta jarduera guztietan, hala jasota geratu beharko da. | SEGUNDO: En las resoluciones y actos que se firmen en virtud de la presente delegación, se hará constar esta circunstancia. |
| **HIRUGARRENA:** Ebazpen hau bertan aipatzen den egunetik Aurrera egongo da indarrean. | TERCERO: La presente resolución causará efectos a partir del día de la fecha. |

| | |
|---|---|
| Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendari Nagusiari, Osakidetzako Estatutuen 5.2 artikuluan, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. Artikuluan xedatutakoari jarraiki. | Contra la presente resolución podrá interponerse Recurso de Alzada ante el Director General de Osakidetza, de conformidad con el artículo 5.2 de sus Estatutos Sociales y el art. 121 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |

Mendaron, 2018ko abenduaren 11n

Iz./Fdo. **Marbella García Urbaneja**
**DEBABARRENA ESIKO ZUZENDARI GERENTEA**
**DIRECTORA GERENTE OSI DEBABARRENA**